

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA JUSTICIA E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

RELACIONES INSTITUCIONALES Y  
PORTAVOZ DEL GOBIERNO

ADMINISTRACION LOCAL

EDUCACION

SALUD

DESARROLLO RURAL Y MEDIO  
AMBIENTEASUNTOS SOCIALES FAMILIA  
JUVENTUD Y DEPORTE

CULTURA Y TURISMO

OBRAS PUBLICAS TRANSPORTES Y  
COMUNICACIONESVIVIENDA Y ORDENACION DEL  
TERRITORIO

INNOVACION EMPRESA Y EMPLEO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroan trafiko-istripuz hildako pertsonen kopurua % 50 murriztu da lehen sei hilekoan

*Urtarrilaren eta ekainaren artean 9 pertsona hil dira; 2010ean, 18 hil ziren denbora-tarte berean*

Viernes, 01 de julio de 2011

Nafarroan trafiko-istripuz hildako pertsonen kopurua % 50 murriztu da 2011ko lehen sei hilekoan 2010ean denbora-tarte horretan izan ziren heriotzekin alderatuz. Zehazki, 9 pertsona (5 gizonezko eta 4 emakumezko) hil dira Foru Erkidegoko hiri eta hiri arteko bideetan urtarrilaren 1etik ekainaren 3era, Barneko Zuzendaritza Orokorrak emandako behin-behineko datuen arabera.

El número de víctimas de accidente de

Nafarroako Gobernuak errepide-sarean trafiko-istripuz 7 pertsona hil dira eta beste 2 hiriko sarean eta beste bide batzuetan. Hildakoetatik, 1 harrapatutako oinezko bat izan zen; 2010ean, berriz, denbora-tarte horretan harrapatutako oinezkoak eta hil zirenak 5 izan ziren. Ibilgailuen arteko talka da heriotza eragin duen arrazoi nagusia: 5 heriotza; horren atzetik, ibilgailuaren kontrola galdu eta ondoren erdibitzailearen aurka talka egin dutenak (2 heriotza), eta beste bat eroritako txirrindularia. 2010eko lehen sei hilekoan 18 heriotza izan ziren, guztira.

Bestalde, 2011ko ekainean Nafarroan izandako trafiko-istripuen kopurua % 8 jaitsi da 2010ean denbora-tarte berean izan zenaren aldean (272; iaz, 296). Bi hilabeteetan heriotza bat izan da, baina zauritutakoen kopuruak % 50 behera egin du zauritu larrien kasuan (5; iazko ekainean, 10), eta % 33 zauritu arinen kasuan (38; iaz, 57).